

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK
BULTZATU BEHARREKO
PARTAIDETZARI BURUZKO
EZTABAIDA-FOROA
EMAITZAK ITZULTZEKO
TXOSTENA**

2023ko maiatza

Eztabaida Foroa herritarren partaidetzarako tresna aurreratua da. Bertan, aukera-berdintasunaren printzipioa oinarri, hautatutako **pertsona-talde** bat biltzen da, interes publikoko gai bati buruz **hausnartzeko** eta **hainbat gomendio** egiteko.


Ildo horretan, Eztabaida Foro bat **herritarrak Administrazio Publikoarekin lankidetzan aritzeko ariketa** bat da. Politika eta zerbitzu publikoak hobetzera bideratutako ariketa baliotsua.



Eztabaida Foroa hainbat **dinamikaren** bidez garatzen da. Dinamika horietan, **adituek** emandako informazioa eta parte-hartzaileek **taldean** egiten duten **eztabaida** konbinatzen dira, parte-hartzaileek **ematen** dituzten gomendioek ikuspuntu guztiak kontuan har ditzaten eta, beraz, **gomendio kualifikatuak** izan daitezten.

Administrazioak aldez aurretik ez du gomendioak bere gain hartzeko **konpromisorik** hartzen, baina bai gomendio horiek **sakonki aztertzeko konpromisoa** eta, gomendioren bat gauzatu behar ez bada, behar beste arrazoitzekoa.






HELBURUA

Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako partaidetza hobetzeko gomendioak egitea. Gomendio horiek kontuan hartuko dira, gainera, **Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako Bizkaiko Foru Aldundiaren III. Planean** sartu beharreko proposamen gisa.



PARTE-HARTZAILEAK




13

emakume



20 gizon

Bizkaiko hainbat eskualdetakoak, hainbat adinetakoak eta hainbat hezkuntza-profiletakoak.



EGUNA ETA TOKIA

Euskalduna Jauregia (Bilbo), **2023ko urtarrilaren 28a**, 10:00etatik 17:00etara.

FOROAN EGINDAKO GALDERAK

- 1. NOLA GAUZATU PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA ?**
PARTE HARTZEKO KANALAK, PERTSONA GUZTIEN PARTE-HARTZEA BERMATZEA
- 2. NOLA EZAGUTU/ESKURATU PARTE HARTZEKO AUKERAK?**
INFORMAZIO- ETA HEDAPEN-KANALAK
- 3. PROZESUAN ZEHAR EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA**
- 4. GARDENTASUNERAKO ETA EMAITZAK ITZULTZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK**

**FOROAK EMANDAKO GOMENDIOEN EMAITZAK ETA
HARTUTAKO KONPROMISOAK**

1. GOMENDIAK

③ Recomendamos que el servicio de participación (Partaidetza) de la DFB proporcione manuales / guías / folletos, de carácter físico para el acceso a la información electrónica a la ciudadanía que así lo solicite.

④ Recomendamos que el servicio de participación (Partaidetza) de la DFB adecue la información a otros idiomas que no sea euskera o castellano.


⑤ Recomendamos que el servicio de participación (Partaidetza) de la DFB garantice los canales de participación y conocimiento de la ciudadanía durante todas las etapas del proceso participativo.

1. REKOMENDACIÖK

PARTE HARTZEKO Eskubidea

• E. LA RENTA :
QUE TAMBIÉN ESTUVERA EN LOS PUNTOS DE DONDE DESTINAR % \$ PARA LA CAMPAÑA DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA.

- LAS APORTACIONES MEJOR → DESPUES DE UN DEBATE.



• → EUSKARA INDIARNU ETA SUSTATU
• Herriarteak jeltza eluskeraz gynn alai dala eta errestegunak ipini honi eragutarzeteko.

• → PRESENTIALA ETA ONLINE
• Bide bide berrmatuta gotea, ~~hazte~~ gotea berrmatuta eta berrmatuta berrmatuta. Adib: gynn da berrmatuta berrmatuta. eta gynn da berrmatuta berrmatuta.
• Diskurtso librea, estoparik, estabaida berrmatuta.
• Presentiala: errega, komunikazio gurena.
• Online: erresteguna, erresteguna.

3. GOMENDIOAK


4.- RECOMENDAMOS QUE SE FACILITE PREVIAMENTE Y CON ANTPICACION SUFICIENTE (=15 DIAS) LOS MOTIVOS DE LA TEMATICA ELEGIDA (REALIDAD Y PROBLEMÁTICA), EFINIENDO LA SITUACIÓN ACTUAL Y LOS PASOS SEGUIR PARA CONSEGUIR IMPLANTAR LAS MEDIDAS OPORTUNAS QUE FACILITEN SU RESOLUCIÓN.

RECOMENDAMOS QUE PARA CONSEGUIR INTERÉS ALTO Y LA MAYOR PARTICIPACIÓN SE GARANTICE UN SEGUIMIENTO PERIÓDICO DE LA INFORMACIÓN A LOS PARTICIPANTES, PARA CONOCER LA EVOLUCIÓN DE LA TEMÁTICA DESDE LA ORACIÓN INICIAL DE LAS PROPUESTAS AS CONCLUSIONES ELEGIDAS.

RECOMENDAMOS QUE EN EL LLAMAMIENTO PARTICIPACIÓN SE ESPECIFIQUEN AL LOS BENEFICIOS QUE ESTA PARTICIPACIÓN SUPONER PARA EL BIEN PROPIO A EL RESTO DE LA CIUDADANÍA.

INFORMACIÓN

23 gomendio



21 konpromisotzat hartuta

1 konpromiso partzialtzat hartuta

1 ez da konpromisotzat hartu beste
foru-zerbitzu baterako izan litzakeen
ondorio negatiboengatik

HARTUTAKO KONPROMISOAK

Kolektibo bakoitzak partaidetza-prozesuetan parte hartzea erraztuko duten kanalak indartzea.

Kanal anitzeko partaidetzaren alde egitea, parte hartzeko eskubidea gauzatzeko aukera emango duena eta, gainera, modu eraginkorrean egingo duena. **Aurrez aurreko kanala** bermatzea IKTak gutxien ezagutzen dituzten kolektiboentzat.

Paperezko formatuan informazio-materiala sortzea Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza-ereduari buruz eta parte hartzeko kanal eta espazioei buruz. Materiala eskuragarri egongo da **Bizkaiko Foru Aldundiko Herritarren Arretarako Bulegoetan**, eta partaidetzari eta Gobernu Irekiari lotutako ekitaldietan, jardueretan eta/edo dinamiketan. Horrez gain, **Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza-webgunean argitaratuko da.**

Partaidetza-prozesuen itxieran sakontzen jarraitzea, honakoei buruzko informazioa emango duten **txosten edo memorien bitartez**:

- Abian jarritako **partaidetza- eta hedapen-kanalak**.
- **Lortutako partaidetza-maila** (globala eta taldeka zein kolektiboka banatuta).
- Partaidetzaren bidez lortutako **eragina**.

Parte hartzeko aukerak lurraldera gehiago hurbiltzea, batez ere xede-publiko zabalagoa duten prozesuetan.

Parte hartzeko aukerak lurraldera gehiago hurbiltzea, batez ere xede-publiko zabalagoa duten prozesuetan, horretarako, udalek egiten dituzten jolas-jarduerak aprobetxatuz.

Partaidetza erakargarriagoa eta lagunkoiagoa egitea, **gamifikazioaren** (jolas-elementuen erabilera) potentzialitatea partaidetza-prozesuetan aplikatuz.

Herritarren partaidetza sustatzeko kanalak sendotzea, betiere efizientziaren eta arrazionaltasunaren printzipioak aplikatuz. Gainera, **udal-komunikazioko** kanalak baliatuko dira, parte hartzeko foru-prozesuak herritarrei hurbiltzeko.

Bizkaiko gazteen partaidetza sustatzen jarraitzea, Hurrengo Partaidetza Planean **haurren eta nerabeen partaidetza** sustatzeko berariazko ildo espezifikoa sartuz.

Eztabaida Foroak bultzatzen jarraitzea, formatu hori egokiena dela ulertzen den **beste gai** batzuetan. 2 dimentsio indartuz:

- Prozesu bakoitzaren hasieran emandako **testuinguru-informazioa**, informazioan gehiago oinarritutako partaidetza ahalbidetzeko.
- Partaidetza-prozesuetan **hartutako konpromisoak abian jartzeari buruzko kontuak ematea**.

Herritarren partaidetza sustatzeko kanalak sendotzea, betiere efizientziaren eta arrazionaltasunaren printzipioak aplikatuz.

Hizkera Argiaren printzipioen aplikazioa indartzea partaidetza-prozesuetan sortutakodokumentazioan. Txosten zabalak daudenean, **horien laburpen exekutiboa sartuko da.**

Antolatzen diren hurrengo Eztabaida Foroetan **gomendioak egiteko galderak Foroa egin aurretik** eta behar besteko aurrerapenarekin **bidaliko dira**. Testuinguruan jartzeko **bibliografia eta dokumentazioa ere bidaliko dira.**

Partaidetza-prozesu guztiek Partaidetzaren Memoria bat edukiko dute. Memoriak zuzenean igorriko zaizkie prozesuan parte hartu duten pertsoneri, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza-webgunean ere argitaratuko dira.

Partaidetzaren onuren komunikazioa indartzea, bai partaidetzarako Bizkaiko Foru Aldundiaren ereduari eta jardunbideari buruzko komunikazio orokorrean, bai bultzatzen diren prozesuetan.

Euskadiko, estatuko eta nazioarteko **partaidetza-arloko jardunbide egokien identifikazioa, analisisia eta txertaketa** sendotzea.

Partadeitza-prozesuetan hartutako konpromisoen berariazko jarraipena egitea, bai eta horien betetze-mailari buruz kontu-emate egokia ere.

Partaidetza Memoriek **jasotako ekarpenen/proposamenen erantzunarekin lotutako edukiak** indartuko dituzte, eta erantzun hori bai banaka bai antzekoak diren beste batzuekin integratuta emango da.

BFAren partaidetza-webgunearen posizionamendu ona lortzeko lan egitea, **bilatzaileetan eskuragarri** egon dadin eta herritarrek errazago aurki dezaten.

PARTZIALKI hartutako gomendio 1

BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu informazioa euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza batzuetara egokitzea.

Ezin da gomendio hori onartu partaidetza-prozesu guztietarako. Beste jatorri batzuetako pertsonen iritziak eta partaidetza bereziki garrantzitsua den prozesuetan onartu ahal izango da, pertsona horiek ez euskara ez gaztelania menperatzen ez dutenean. Kasu horietan, kolektibo horiek ordezkatzeko dituzten erakundeekin lankidetzan arituko da behar horri erantzuna emateko.

Onartu gabeko gomendio 1

BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu **Errenta Aitorpenerako gaitutako kanalak aprobetxatzea** BFaren herritarren partaidetza-eredua, besteak beste, ezagutarazteko.

Errentaren berri emateko kanpainak bere helburu nagusian zentratzen jarraitu behar du. Duen garrantziagatik, kaltegarria izango litzateke kanpaina horretan mezu nagusiak hutsaldu ditzaketen beste komunikazio-helburu batzuk sartzea.



Mila esker!



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Gobernu Onaren eta Gardentasunaren Zuzendaritza Nagusia

<https://www.bizkaia.eus/es/participacion-ciudadana-y-social>